

Naike Ereñozaga, Ostots Triatloi Kirol Klubeko kidea: “Zirkuituko duatloirik politenetarikoa da Ermukoa”

Mungiarra da Naike, biologian lizentziatua, eta 36 urte ditu. Lau urte eman ditu gure artean bizitzen eta herriko hamaika kirol saltsatan sartuta dagoelako ezagutzen dute askok: spinning-eko irakaslea da kiroldegian, korrika egiteko nesken taldetxoaren sortu du eta azkenaldian, otsailaren 8an burutuko den V. Duatloia antolatetan dabil buru-belarri.

- Zer dela eta etorri zinen Ermura?

Eibarren egiten nuen lana, ingurumen-aholkularitza batean, eta ez nuen nahi kotxearekin ibili. 2009an etorri nintzen eta duela urtebete Mallabian bizi naiz. Orain Derion egiten dut lana, esparru berean, eta kotxea behar dut berdin-berdin. Tratu txarra egin dut!

- Eta kirola duzu gustuko?

Batez ere, bizikleta gustatzen zait. Lehen lehiatu egiten nuen eta hemen spinning-eko klaseetara joaten hasi eta irakasle titulua ateratu nuen. Orain 2 ordu ematen ditut astean, baina sasoi batean 8 ordu ematen nintuen, lanetik bueltan. Anemiarekin bukatu nuen.

- Ostots Triatloi Klubeko kidea zara, ezta?

Bai eta 33 lagunaren artean, neska bakarra naiz: neska gehiago behar ditugu taldean lehiatu ahal izateko! Horrez gain, zuzendari-tza-taldean sartu naiz aurtengo otsailaren 8an egingo den V. Duatloia antolatzen gabilta orain.

- Aurreko urteetan beranduago egin izan da duatloia, ezta?

Bai, baina beste proba batzuekin bat egiten zuen. Aurtengo Euskadiko lehen proba izango da Ermukoa.

- Nola baloratzen dituzu aurreko edizioak?

Ez dut esaten guk antolatuta dagoelako, baina zirkuituko politenetarikoa da Ermukoa eta hoberen antolatuta dagoena. Herriko jendeak dena ematen du, bizikletarako kultura dago... Mungian baino jende gehiagok animatzen nau hemen!



- Zenbat denbora daramazue antolatzen?

Azken 2 edo 3 hilabeteak. Gainera, babesle berriak lortu eta sekulako sariak ditugu.

deak dena ematen du, bizikletarako kultura dago...

Egunean bertan 100 laguntzaile egongo dira eta 190 parte hartzaileentzako lekua dugu, Duatloi Txikia egingo da....

- Etorkizunerako zeintzuk erronka dituzu?

Orain krozean hasi naiz eta horrez gain, Iron Man erdia egiteko asmoa dut, Nafarroako Aritzalekun seguruena, ekainean.

Dorleta Vidal



LEIRE MAYORA
PODOLOGOA

Erdikokale 1, 1. A
48260 Ermua
☎ 943 17 47 44

ONAINDIA
HARATEGIA

Etxean egindako
odoloste eta txorizoak



Kantabria zeharbidea 1
48260 - ERMUA

Tel. 943 10 85 44
Mug. 678 64 85 41

Pub SCORPIO



Zubiaurre, 21
ERMUA

OUTUMURO
Kafetegia

Kafe eta tarta bereziak
Aukera handia **TE** eta **INFUSIOETAN**

Astelehenetik ostiralera 9etan zabaltzen dugu